

BERRIGARA

27 zenbakia


Jardun elkarte, Bergara

1991, ekainak 28


Samartzialak 91 Aurten be etorri hadi !!



Au-pair
Hizkuntzak ikasteko
beste era bat



Ekainak 28:
lesbiana eta
homosexualen eguna



Euskadiko II. Kirol
Eskalada
Txapelketa



ROVER

SAN ANDRES AUTOMOBILAK

ROVER 200 SERIEA, 16 BALBULA ETA

1.785.000 PZTATIK AURRERA

Araba Etorbidea 13, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 79 95 22 / 79 53 98



**ASKASIBAR
JATETXEA**

Barrenkale, 3. BERGARA • telf.: 90-765919

ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE



Arantza Garitano

**Aurreko GALDE DEBALDEKO erantzun zuzena
SAN ESTEBAN ERMITTA genuen.
ASKASIBAR jatetxeko SARIA Arantza
Garitanok irabazi du. Argazkia honetan ikusten
dugu gure saritua ASKASIBAR JATETXEAN saria
jasotzen.**

ZORIONAK Irabazleari!

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste
hontako galderari!**

**HERRAN
ETXEA**

Elektragailuak
T.B. - Bideoak - HI FI
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3 Tfnoa: 76 12 22 BERGARA

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Telefonoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

Maketazioa:

Edurne Arenaza

Publizitatea eta harpidetza:

Ignazio Irigoien, Edurne Arenaza
Telefonoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarraide, Monika Belastegi, Mikel
Elkoroberezibar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategia: A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Tabares, Txomin Retolaza, Kifitu eta
Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak Josu Okina
eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Geritu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien eta eri-
tziaren erantzunkizunik.



28 OSTIRALA

- Zinea: "Amantes", 10.30-etan.
- Erakusketak:
- Nahikarin Luis Jose Yanizen pintura erakusketa.
- Kultur etxean argazkilari gazteen argazki erakusketa.
- Kontzertuak:
- Elorrioren plazan: *Bluesmatxin* 10etan.
- Azkoitian, Enparantzan: *Window Ventanas* 11etan.
- Elgetan jaiak:
- Kontzertua: gaueko 11.etan, *E.H.Sukarrak* eta *Kemando Ruedas*.
- Bolo Txapelketa jubilatuta eta emakumeentzat arratsaldeko 7.45etan.
- Zezena plazan 7.30etan
- Zirkoa: Seminarioan gaueko 9.30etan Infernuko gidariak
- Goardiako farmazia: Egunez: Puy (Barrenkale) Gauez: Azcoaga (Arrasaten)

29 LARUNBATA

- Zinea: "Amantes" 10.30-etan,
- Kontzertuak:
- Elorrioren Plazan *La Jesse James Band* eta *Tonky Blues Band* taldeak gaueko 11.etan.
- San Martzial jaiak:
- Kamp dantzaldia *Renovacion* taldearekin.
- Goardiako farmazia: Egunez: Guallar (San Antonio) Gauez: Español (Arrasaten)

30 IGANDEA

- Zinea: "Amantes", 7.30-etan eta 10.30etan.
- Kontzertuak:
- Elorrioren Plazan *Txingurri Big Band* eguerdiko 1etan.
- Elgetako jaiak: Ganadu ferixia.
- San Martzial Jaiak:
- 7.30etan letania
- 9.15 alborada dultzaineroak, txistulariak eta trikitilariak.
- 10etan San Martzialeraigoera.
- 11etan Mesa
- 6retan herri kirolak.
- 9etan jeitsiera.
- 10.30etan San Martin Enparantzan dantzaldia *Kaixo* taldearekin.
- Turnoko Okindegia: Mizpildi
- Goardiako farmazia: Egunez: Guallar (San Antonio)

nion)

Gauetz: Corcuera (Arrasaten)

1 ASTELEHENA

- Zinea: "Amantes" 7.15etan.
- Goardiako farmazia: Estella (Matxiategi)

2 ASTEARTEA

- Goardiako farmazia: Mozos (San Pedro)

3 ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Camacho (Oxirondo Enparantza)
- Kontzertua:
- Elorrioren Gaztetxean 9.30etan *Slip Revenge*

4 OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Puy (Barrenkale)

Aukeran...

San Martzial eguna.

Elgetako jaiak



ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Telefonoa: 76 29 65

BERGARA

M. OSINAGA

✓ Etxeko
erreformak
✓ Sukaldeko
altzariak

Espaloia z/g
Tfnoa: 76 29 85 /76 00 57

YAZKI

UME GAZTE
Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

ETXAGI

Afariak JATETXEA
Bazkariak
Gosariak
Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Igarleku Munizipala



Aintzinako Grezian ba zen, Delfos-en, Apolo jainkoaren laguntzarekin geroa, etorkizuna jakiteko doai berezia zuten emakumeak bizi zireneko jauretze ospetsu bat. Ospetsuaren ospetsuz, herri xeheak ezezik agintarietxek heuren ere hara jo ohi zuten argi bila erabaki garrantzitsuenak hartu aurretik.

Izan ere, gizakiak betidanik izan du geroak zer ekarriko ote dion jakin ahal izatearen ametsa. Euskaldunek ere bai, noski, eta albiste zaharrek diotenez gurean ere ba ziren horretarako berarizko trebetasuna zuten aziak. 300garren urtean hor nonbait, adibidez, Alejandro Severo Erregearen bizi-kondaira idatzi zuen Elio Lampridio-k, haren gorazarrea eginez, etorkizuna igartzen auzi euskaldunak heurak baino trebeagoa zela dio; 670garrenean ere, San Amado bere irakaslearen egintzak idatziz erasota utzi zituen Baudemundo-k gure arbasoen auzi-igarketa horrekiko zaletasuna eta griña aipatzen dizkigu.

Geroago, ordea, geroa igartzeaz azterkeria hori Euskal Herrian galdu egin zela edo behintzat beste sorginkeria-bide batzuk nagusitu zitzaizkiola ematen du. Caro Barojak ba ditu horretazko azterlan interesgarriak. Nolanahi ere, erdi-arroan gure sorginen aipua Euskal Herriko kanpo ere zabaldu zen, Gaztelan bertan sorginei "jurguinak" eta "durangas" deituazteraino; azkeneko hori, jakina, Durangoko sasi-fededunen epai eta erreketen ondorioz.

Bainan sorginak, Garbitokiko arimen agerketak eta horrelakoak ere gurean aspaldi gabe galdu dira, zenbaiten iritziz Eibarren pistolak egiten hasi zirenean; dena den, orain egunkaritan iragarkiak jarri eta bere igarketetarako karteak, kristalezko boilaz, te-hondarrez eta horrelakoez baliatzen diren sasisorginak kanpokoak eta bertakoekin inolako zerikusirik ez dutenak ditugu.

Horregatik, Bergaran geroaren igarketak iraua zirauela ikusteak bene-benetan harritu ninduela aitortu behar dut, eta are gehiago herri-zerbitzu gisa zirauela ikusi nuenean, greziarrek heuren ere ez bait-zioten horri horrenbesteko ofizialtasun-mailarik eman. Hori horrela, eta gertakari horri etnografiaren eta agian turismoaren aldetik ere oso interesgarri eritxita, gure herriko agintarietxek salo bat egin behar litzatekeela otu zitzaidan, orain horretarako tegian dagoen idazkuna osatuz arrotz-hizkuntzetan ere jarri dezatenekoa alegia; hona nola geldituko litzatekeen, gutxi gora-behera:

Bergarako Igarleku Munizipala/Adivinatorio Municipal de Bergara/Oracle Municipal de Bergara/Municipal Oracle-House Of Bergara.

Adiskide batek, ordea, tegi horretan ezer "igarri" ez baizik eta "igari" egiten dela esan dit, eta hori "igartze-leku" izan ordez "igari-leku" denaz jabetzeak erabat behea jota utzi nau. Akabo gure herriaren izena mundu osoko etnologiariei ezagutarazteko nire ametsa.

Beraz, nire saloa aldatu, eta honako hau soil-soilik jarri dezatenekoa egiten diet gure agintarietxek: BERGARAKO UDAL-IGARILEKUA

Iosu Oregi

Tiira ba!



Josu Okina



Iñaki Mozosen Pantzart

Agerre Teatro Antzerki Taldeak Iñaki Mozos bergararrak orain hamar urte idatzitako *Pantzart* izeneko pastorala antzestu zuen pasa den asteburuan Donostiako Antzoki Zaharrean. XIX. mendeko eskuizkribu batetan oinarritutako pastoral honek izatez mila estrofa inguru ditu baina Maite Agirrek zuzendutako taldeak hirurehun bat besterik ez ditu antzestuko. Letren aldetik, maskaradaren girotik hurbil dagoen trajikomedia honetan Zuberoako euskara moldatu egin behar izan da Hego Euskal Herrian antzestu ahal izateko.



Bikote bergararra hirugarren

Joan zen igandean, Edurne Arzelus eta Eduardo Muruamendiaraz bergarrek 3. postua lortu zuten Seguran izandako Euskadiko Dantza Solteko Txapelketan. Segurako Pilotalekua jendez gainezka zegoelarik, aurkeztutako bikote guztiek txistu eta trikitixaren laguntzaz *fandangoa* eta *arin-arina* dantzatu behar izan zituzten. Kanporaketen ondoren, bikote bergararra Illarreta-Mendizabal donostiarrak eta Agirre-Sagarzazu bikote azkoitiarraren atzetik sailkatu zen.



Soldaduska umorez

Bergarako Objeto Talde Antimilitaristak (BOTA) soldaduskaren parodia bat egin zuen joan zen ostiralean herriko kaleetan zehar euskal intsumisoen aurkako lehen gerra kontseiluak salatuz. Orain dela bi aste, Joseba Lazkano intsumiso eibartarrari 16 hilabeteko kondena ezarri zioten euskal intsumiso bati egindako lehen gerra kontseiluan. Aurreko ostegunean berriz, fiskalak 18 hilabeteko zigorra eskatu zuen Imanol Huici andoaindarrarentzat. BOTAKoek umorez ekin zioten soldaduskaren aurkako parodiari eta kalean zebilen jendeak primeran pasa zuen militar eta intsumisoen artean izandako *tirabirekin*. Azkenik esan BOTAKoek EHNEkoekin batera San Martzialgo taberna hartu dutela. On egin!!

□ Ttipi Ttapa

Amnistiaren aldeko jostorek antolatutako martxa astearte arratsaldean heldu zitzaigun gure herrira. Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuaren aldeko martxa honetako partaideek Bergaran afaldu eta lo egin zuten, asteazken goizean berriz ere martxan jarriaz.

□ Udan ikasi

Aurten ere Bergarako Udalak Udako Euskal Unibertsitatera edota euskara ikastera barnetegira joan nahi dutenentzat diru laguntzak eskaintzen ditu. Dirulaguntza horietakoren bat lortu nahi lukeenak Udaleko Euskara Zerbitzuan jaso dezake argibide gehiago.

HALTZARI

Fagor altzarien
banatzailea.
Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA

ERREKI

Erretegia

Berezitasunak :
Bixigua eta txuletak.

Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51




KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate 1
BERGARA

□ Play back

Kilometroak 91 dela eta irailean ospatuko den Kultur Hamabostaldian play back lehiaketa antolatu da. Parte hartu nahi duzuenok uztailearen 9a baino lehen Kilometroetako ofizinan izena eman beharko duzue.

□ Orfeoia

Bergarako Orfeoiak gaur ostirala, kontzertua eskainiko du Seminarioan 10 t'erdietatik aurrera. Orfeoiak, besteak beste, Bach, Mozart, Brahms eta Aita Donostiaren piezak kantatuko ditu.



San Juan suak

Ohiturari jarraituz, San Juan gauean ez ziren suak falta izan gure herriko hainbat puntutan. Udari paso ematen dion urteko gaurik majiko eta laburrenean han eta hemen sumetak ikus zitezkeen herriko kaleetatik, kasu gehienetan baserrietako inguruetan. Dudarik gabe sua da jai honen mamia eta kalean ere zenbait sumeta egin ziren gaitz ezberdinak desagertarazteko; Euskal Herrian Euskaraz erakundearen iniziatibaz, esate baterako, euskararen oztopo diren zenbait elementu erre ziren Santa Marina inguruan
Euskara eta Publizitatea kanpainaren barruan.



Gay eta lesbianen eguna

Gay eta lesbianen liberaziorako eguna lemapean gaur ostirala bi kolektibo hoienguna ospatzen da mundu zabalean. Egia esan, atzo jarritako pankarta batzuk edo gaur arratsaldean Arrasaten egindako manifestazioa izan ezik, egun honek ez du ia inolako erantzunik izan gure herrian. Kontua da gay eta lesbianek ere badutela bere eguna egutegian markaturik. Eta han eta hemen ospatu delakoan gaude, eurek ere beraien ahotsa entzunarazi nahi bait dute. Gizarte osoarekiko berdintasuna da bi kolektibo hauen eskakizun nagusietako bat, horixe baita hain zuzen Espainiako Konstituzioan eta Giza Eskubideen legean jasotako ideia garrantzitsuenetako bat. Konstituzioak argi uzten du ezingo dela arraza, pentsakera, erlijioa edo sexua oinarritzat harturik inolako berezkiarik egin. Gay eta lesbianek behin baino gehiagotan salatu dute gizarteak baztertu egiten diela, bai lana topatzeko edota haurren adopzioarako orduan aurkitzen dituzten oztopoak. Kolektibo hauen eritziz, homosexualitatea ezin da inola ere diskriminazio edo errepresiorako aitzakizat erabili eta gizarteak bikote homosexualak errekonozitu ditzala eskatzen dute, Europako iparraldean egiten ari den bezala. Gaurko egunean, bikote heterosexualekiko existitzen ez den berdintasuna aldarrikatzen dute, guztiok eskubide berberak izan ditzagula bai teoriarik eta bai praktikan ere, benetako berdintasuna azken finean.

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22,

Tfnoa: 76 20 19

BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07

MAKAILO

Makailo **ETXEA**
kazuelak

gertatzen ditugu

Ibargarai 15

IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER "
PRODUKTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Pintoreak nora?

Orain hiru bat urte INEMek eskola-tailerrak sortzeari ekin zion. Tailer hauek, besteak beste, fatxaden berriztapenerako edota inolako irakaskuntzarik ez duten lanbideen prestakuntzarako ikastaroak antolatu dituzte langabetuentzat denbora honetan. Bergarako Udalak ere lehengo kartzela zaharra eskeini zuen tailer hauetako ikasleek berriztatu zezaten, behin obrak amaituz gero, bertan Bergarako kolektiboren bat kokatzeko asmoz. Udalak, hasieratik, Bergarako pintoreak kokatu nahi zituen bertan baina pintore eta eskultoreek ez dute begi onez ikusten lokal hori; euren artean elkartu eta asoziazio bat sortzeari ekin diote, horren helburu nagusietako bat Udalarengandik lokal aproposago bat lortzea izango delarik. Euren ustetan, kartzelak ez ditu betetzen honelako kolektibo batek lanerako eskatzen dituen baldintza minimoak; espazio gutxi, oztopo asko, horixe da kolektibo honek arbuiazen duena. Lantoki praktikoagoa nahiago dute, herritik kanpoko nabe industrial bat esate baterako. Baina oraindik sortze lanetan dagoen elkarte honek bestelako asmoak ere baditu: margo erakusketak, elkartrukeak egin, ... etab. Elkarketa horrekin laguntzak jasotzeko ere erreztasun gehiago izango dutela diote. Era berean, egunotan modan dagoen erreabilitazioan estetikalak ere berebiziko garrantzia duela azpimarratzen dute, eta horretan ere prest daude beraien ahotsa entzunarazteko Bergarako kolektibo bezala.

Liburutegia

Liburutegia, uztailen goizez bakarrik zabalduko da, astelehenetik ostiralera 8etatik ordu batera. Uztailaren 24etik abuztuaren 26a bitartean itxita egongo da eta irailean berriz, ohizko ordutegian irekiko da berriz ere.

Argazkiak

Txema Muñoz bergararra eta Gorka Salmeron legazpiarraren argazkiak iganderarte ikusgai dituzue Kultur Etxean. *Ortopedia subjektiva* titulupean, bergararrak Gasteizko hiltegian ateratako argazkiak aurkezten ditu.



Egun osoa dantzan

Joan zen igandean gure herrian ospatutako XVII. Haurren Euskal Jaian dantzari gaztetxoak eta beroa izan genituen protagonista nagusiak. Hirurehun bat haur inguru hurbildu zitzaizkigun eta Goizuetako taldea izan genuen *kale* egin zuen bakarra. Haurrek etxeetan eta elkarte ezberdinetan bazkaldu zuten eta, eguraldia hondartzara joateko aproposagoa izan arren, giro ederra izan zen gure herriko kaleetan egun guztian zehar. Gaztetxoez gain, Musika Eskolako Txarangak, dultzaineroek eta trikitulariek ere jardun zuten kaleak alaitzen.

Nahikari

Luis Jose Yanizen

pintura
erakusketa

"Nire ustez nire lanaren baliorik haundiena neure-neurea den estiloa sortu izatean dago".

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71

ESPOLON




School of English

Ibargarai 31

Ondo pasau uda!
eta irailean 91-92
ikasturteko matrikulak egin

Tfnoa :76 03 53

BERGARA



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA
SELF SERVICE-a

Barrenkale 31, Tfnoa: 76 20 02

Au Pair:

Hizkuntzak ikasteko beste era bat

Bizi garen gizarte honetan, mugarik gabeko Europa batetara goazenean, Estatu ezberdinetako herritarren arteko harremanak gero eta estuagoak dira. Ama hizkuntzaz gain beste batzu ere ezagutzea beharrezkoa gertatzen da: ingelesa, frantsesa edo alemaniera jakitea ia premiaskoak dira. Askok dira hizkuntz-akademietan ikasten ari diren bergararrak eta baita atzerrira hizkuntzak praktikatzera doazenak ere. Uda heldu dela eta, aproposa iruditu zaigu Au Pair ibiltzeari buruzko erreportaia egitea.

Au Pair izenaz, denboraldi baterako atzerriko familia baten etxera lanera doazen emakumeak ezagutzen dira. 18 urtetik 30era bitarteko neska atzerriko familia baten etxean alojamendua lortzen dute, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke.

Atzerrian lan egiteko eta bide batez hizkuntzak ikasteko erarik samarrenetarikoa dela esan genezake. Familia hartzaileek etxea, janaria eta diru pixkat ematen die Au Pairei egunean ordu batzuk lan egiteagatik, eta irabazten dutenarekin eskoletan hizkuntzak ikas ditzaten. Horrela da teorian, baina errealitatean ez da beti berdin gertatzen. Inglaterran Au pair egondako askok izandako esperientziek horrela egiaztatzen

dute: "hasieran ordu batzuk lan egiteko hartzen bazaituzte ere, 12 ordu eta gehiago etxeko lanetan pasatzen dituzu".

Direnak direla, lanean sartzen duten ordu kopurua arabera Inglaterran bost Au Pair mota daude: Demi-



Pair (egunean hiru ordu egiten dute etxeko lanetan eta astean bi edo hiru gau umeak zaintzen. Horren truke astean 2.000 pezeta jasotzen dute eta bi egun oso libre); Demi-Plus (egunero lau ordu lanean eta bi edo hiru gau umeak zaintzen. Bat edo pare egun jai eta 3.500 pezeta inguru jasotzen dute astean);



Au-Pair (bost ordu egunean lanean eta hiru edo lau gau haurrak zaintzen. Egun bat jai eta astean 5.000 pezeta irabazten dute); Au-Pair Plus (egun batzuetan bost ordu eta besteetan zazpi edo zortzi lanean. Horrez gain hiru edo lau gau umeak zaintzen eta egun bat jai, 7.000 pezeta irabazten dute astean) eta Mote's Help (zazpi edo zortzi ordu egunean etxeko lanetan eta bi edo hiru gau umeak zaintzen. Egun bat eta erdi jai eta 10.000tik 16.000 pezetara bitartean jasotzen dute).

Au Pair lanerako normalean agentzia bitartez lortzen dira familiak. Euskal Herrian (Eibarren, Arrasaten, Leioan, Gasteizen, Donostian edo Bilbon, besteak beste) Au Pair joan nahi dutenen eta

atzerriko agentzien arteko bitartekari lanak egiten duten agentzia ugari daude. 12.000 pezeta inguru kobratzen dute lan horregaitik. Hemendik atzerriko agentziekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera ere badago. Horrela eginez gero ez da ezer ordaindu behar.

Udaleko Gazte Zerbitzuak Euskal Herriko zein atzerriko agentzien helbideak eskeintzen ditu. Herriko akademia ezberdinetan ere informazioa lortu daiteke.

Askok dira sasoi honetan, udako bi hilabeteak aprobetxatuz Au Pair atzerrira joaten direnak. Neguan, berriz, gutxienez hirutik sei hilabeterako egonaldiak onartzen dira. Gehienez bi urte egon daiteke. Eskakerak, hiru hilabeteko aurrerapenaz.



UNED

Bergara

HIZKUNTZA ESKOLA

91-92 Kurtsoa

INGLESA eta FRANTSESA

Maila Guztiak emango dira.

Aurreinskripsioa: uztailak 12ra arte

Matrikula: Irailaren 5etik 25era

Tfnoa: 76 13 42

Esperientziak agerian

Maribel, Elena eta Mari Nievesek diñoe



Maribel Berasategi

Orain dela bost urte, 18 urte nituenean joan nintzen Au Pair Ingalterrara. Bederatzi hilabete egin nituen, Londresetik gertu, hego-ekialderuntz dagoen Essex-en. UBI amaitu eta selektibitatea egin ondoren hizkuntzekin zerikusia zuen zer-bait ikastea nahi nuen, baina lehenago ingelesa ondo menderatu nahi nuela eta Au Pair joatera ausartu nintzen. Gero Zuzendaritzarako Idazkaritza ikasi dut.

Donostiako agentzia baten bitartez, Ingalterrako agentzia batekin harremanetan jarri nintzen. Haiek, familia batzutako datuak eman zizkidaten eta azkenean haruntz jo nuen.

Egunero bost ordu egiten nituen etxeko lanetan eta astean behin hartzen nuen jai, astelehenetan. Horren truke, bazkaria eta egonaldia ordaintzen zidaten eta beste 17 libra (3.400 pezeta) neure poltsikorako.

Etxeko lanak egiteaz gain astean bederatzi ordu sartzen nituen hango eskola batetan ingelesa ikasten.

Esperientzia gogorra baldin bada ere (18 urte besterik ez nuen Ingalterrara joan nintzenean), Au Pair joatea hizkuntzak praktikatzeko erarik errazena eta egokiena da.

Mari Nieves Aranes

Azken sei urteak atzerrian eman badi-tut ere ez naiz sekula Au Pair egon. Ez dut sinisten hizkuntza ikasteko formula horretan ezta beren inguruan lan egiten duten agentzia eta erakundeetan: bitartekari lanak egiteagatik diru mordoak kentzen dizute.


Egia da hizkuntzak ikasteko era baliagarria eta atzerrira joateko modurik merkeenarikoa dela. Baina Au Pair batek egiten duen lana, askotan, lana baino gehiago esplotazioa izaten da, hartzen duen familiaren morroi bihurtzen da. Ehun familiatik bost onak izan daitezke, baina gehienak ez zaituzte ondo tratatzen.

Neri beti gustatu izan zait bidaiatzea, kultura ezberdinak ezagutzea eta bide batez hizkuntzak ikastea.

Sei urte izango dira Mariaren Lagundian administrari ikasketak amaitu eta Irlandara joan nintzela. Dublinen egon nintzen ezagun batzuen etxean: ingelesa praktikatzear gain, haurrak zaintzen nituen.

Gero Canadara joan nintzen sei hila-beterako eta orain New Yorken bizi naiz. Bertako familia baten etxean bizi naiz eta ahal dudan tokitik dirua ateratzen dut egonaldia ordaindu ahal izateko. Bestalde, Unibertsitatean, itzultzaile eta interpretaritzara ikasten ari naiz.

Ingelesa ikasteko, nahiago dut Estatu Batuetara joan, Londres edo Dublin, Europako edozein hiriburu bezalaxe, españolez beteta bait dago.



Elena Balentziaga

Orain dela hiru urte Irlandar Errepublikaren hegoaldean dagoen Cork hirian izan nintzen Au Pair lanean. Ez nintzen hemengo zein Ingalterrako agentzien bitartez joan, nire kontura baizik. Bertan zegoen Bilboko lagun baten bidez joan nintzen. Hango eskola baten ari zen ikasten eta eurek egiten zuten familia bat topatzeko gestioa. Eskolan apuntatuz gero, Au Pair hartuko zaituen familia bat lortzen dizute. Lau hilabete egin nituen Irlandan Au Pair lanean.

Hasieran baldintzak oso politak izaten dira: zortzi ordu egin behar dituzu etxeko lanetan, astean bi egun jai, eta zuretzako gela bat uzten dizute. Hasierako 8 orduak 24 ordu bihurtzen dira. Egun osoa galtzen duzu haurrak zaintzen eta etxeko lanak egiten. Nik hiru mutiko neuzkan baina harreman hestuenak bederatzi hilabeteko ume arekin nituen. Atera kontuak, ingelesa baino gehiago euskaraz egiten nion haurrari. Horregatik ez nuen piparrik ere ikasi.

Au Pair joatea, atzerrian hizkuntzak ikasteko erarik errazena da, baina oso gogorra. Au Pair egon nintzenean lan asko egiteaz gain ez nuen ezer ikasi.

BERGARA 76 32 02

ELGOIBAR 74 02 36

ANTZUOLA 78 70 30

THE KENSINGTON SCHOOLS OF ENGLISH

Udako ikastaroak. Izen emateko epea zabalik.

Baldintza ezin hobek 1991-92 ikasturterako.



Gipuzkoako Hizkuntz Ikastegien Elkarteak.



CAMBRIDGE Unibertsitateko P.E.T. azterketen antolatzaileak.



Goizeko zazpi t'erdietan etxafleroak jaurti eta gero letaniak San Martzialera igoerari ekingo dio. Ehundaka dira goizean-goiz San Martzialeko zelaietaruntz igotzen dutenak. Burdiak igotako ardoz beteriko kupela toki aproposan kokatu beharko da: egarria asetzeko. Beheko argazkian orain ehun urte inguru, gaur egun egiten den bezalaxe, *desafiua* dantzatzen.



Samartzi Heldu



Heldu dira Samartzialak eta urteetako ohitura zaharrari eutsiz aurten ere bergarar gehienok, zahar zein gazteak, San Martzialeko zelaietan bilduko gara urteko egunik alaienetarikoa elkarrekin igarotzeko asmoz.

Goizeko 7,30etan San Martin Plazatik jaurtitako etxafleroaren ostean, San Martzialeko ermitarainoko ibilaldia egingo du letaniak. Bi ordu beranduago, berriz, txistulari, dultzainero eta trikitilarien alborada izango da herriko kaleetatik zehar. 10etan burdiaren igoera, ordubete beranduago ermitan meza ospatuko delarik. Ondoren, ohizko aurraskua dantzatuko da zelaian.

Tfnoa: 76 00 50

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

Tfnoa: 76 00 50

zialak 91

udira !

Bertan jaixak / 11



Argazkiak:
M. Murgizu
J. Lazpiur
Kiñu

Bazkalorduan koadrilak eta familiak mahaiaren inguruan bilduko dira, gus-tora prestatutako janariak irenstera.

Arratsaldean, jokuak; ahal duenak bere indarrak neurtzeko aukera izango du antolatu diren herri jolasetan parte hartuz. Horrela, jai giroan, iluntzerarte. Eguzkia izkutatzearekin batera herrira pasakallean jeitsiko gara eta behean azken indarrak agortuko ditugu... Datorren urtean berriro.

Miguel de Unamuno idazle ospetsuak 1988an idatzi zuen bezala: "...guztiok jai giroan, egun pozgarria gogoratzuz, buruan darabilten umore ona lotan ausnartzera. Herria lasai, eta guztiok buruan Samartzialaren gogorapena eta hurrengo urterako gogo bizia.."




Egunak aurrera egin du. Bazkal orduan zelaiazen bazter guztietan jarritako mahaiak jendez beteko dira. Sabela ondo bete ondoren, arratsaldean nahi dutenek indarrak neurtzeko aukera izango dute.

Ermittaren aurrekaldeko zelaian herri jokuak antolatzen dira: sokatira, txinga erute,...

Indartsuak jaun eta jabe! Bertsolariak, dultzaineruak, txistulariak..., alaituko dute eguna.

Eguzkia izkutatzen hasi denean behera jeitsiera.

Datorren urtean berriz...




KILOMETROAK 91

BERGARA, Urriak 6

Banatzaile ofiziala

MINERardak Tfnoa: 76 57 36 / 76 59 89



Zuhaitzi
 AFARIAK: Asteburuetan
 Aste barruan enkarguz
 Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
 D. Irala, 3 - Tlf. 761235
 Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA

KIZKUR
 Ileapaindegia
 Solariuma
 Boku 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA


**ETXE-
-AUNDI**
 Negozio bazkariak
 Ezkontzak
 Banketeak
 Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
 OÑATI

Zer da San Martzial egunak duen gauzarik onena?




Maite Unanue
21 urte

Momenturik onena bazkariko ordua da, kuadrila osoa mahaiaren inguruan biltzen garelako. Baita jokuak ere, sokatiran betik irabazten dugulako.




Mikel Murgoitio
13 urte

San Martzialeko zelaietara jendea ondo pasatzera joaten da, eta hori da gehien gustatzen zaidana.



Mila Agirrezabal
40 urte

Onenak erromerixia eta bazkaria, han sortzen den giroa.



Jose Maria Elorza
45 urte

Hango ambientia. Urtero joaten naiz familiarekin eta lagunekin ondo pasatzera. Umore onakin ardo mordo bat edan eta...

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA



ERAKUSKETA:
Ibargarai 39,
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA



Gaztetxea

Urte pila bat pasa omen dira gaur Gaztetxe deitzen duguna zabaldu zenetik, baina bere etorkizuna betidanik kili-kolo ote zegoen galdetu izan ohi dugu. Urteak joan eta etorri honetan, inoiz ez da gauzatu proiektu serio eta tinko bat. Herriko "indar biziak" begitxarrez ikusi dute Komenio kalean gazteriak zuen borda urbanoa: askotan pisurik gabeko salaketak egin bait dituzte, nahiz eta salatuen esandakoak kontutan ez izan, "Juven" drogadietoen zuloa besterik ez zela argudiatzen zuten, eta dute oraindik zenbaitzuk.

Azken urteotan Mutxi eta beste lagunen lana erdi izkutatuta gelditu zaigu: txalogarria benetan beraien ahalegina elkartearen irudia hobetzeko, Gaztetearen errekonbertsioa zaila eta luzarorako agertzen zaigu, eta gazteriaren topaleku irekia nahi badugu, herriak baldintzarik gabeko laguntza (ekonomikoa batipat) eskeini beharko lioke.

Alderdi, sindikatu eta halako taldeak ordezkatzeko formulak krisialdi sakon batera iritsi direnez -agian, agortuak daudelako gaur gizarteak planteatzen dituen arazoei erantzunak emateko- elkarte zibilen beharra behin betirako argi eta garbi somatzen da. Ildo horretik jarraituz, gazteriaren eskaerak defendatu dezakeen elkarte Gaztetxea dugu (izenburua bigarren mailako kontua besterik ez da). Demagun, beraz, hurbil gabiltzala, Juvenek ia 35 urte daramatza bere bizkarrean, eta esperientzia ugari eta hainbat gatazkaren ikuskizunek bizi-bizirik diraute. Jadanik ordua iritsi zaigu herriko hiru belaunaldiei (ala hamaika ote?).

Juven-Gaztetxea instituzio bat bihurtu da Bergaran historiaren eraginez, nahiz eta jokoera nahiko anarkikoak izan (perbertutua zenbaitzuren eritzian). Hala eta guztiz ere, ez du horrela izan behar gazteri osansuntsu baten portaera?. horrela bada hasi gaitzen instituzio batek esigitzen dituen egin beharrekoak betetzen, inoiz ahaztu gabe gisa talde baten interesei buruz ari garela eta, ondorioz kasu hontan nolana hiko gizartearen salaketa orokorra mamitzen dela bere barne. Gazteriaren destinoa. Gatozen, ea ba, gaztetearen eraikuntzara, piñoi finkoko "indar biziak" salbu; hoi-entzat ez dago zereginik proiektuan. Betidanik izan ohi dira interes kontrajarriak, barkatu, klaseak.

Iñigo Urrutia



Leikedostazu

Gure euskara, bakarra, ahaiderik gabea eta mendetan hainbat eraso izan arren tinko mantendu dena, ez dago egoera erosoan. Alde batetik, oso gutxi erabiltzen dela diote burututako ikerketek eta bestalde geró eta nahaste gehiago dago, hau da, askotan euskara "apatxea" edo oso baldarra hitzegiten da.

Lerro hauek idaztera bultzatu nauena, Arrasateko jaietan pareta batean irakurritako esaldi adierazgarria izan da. Rotuladorearen Literatura deitu daitekeen ohitura zabal horren jarraitzaile batek egindakoa. "Franco-k 40 urtetan lortu ez zuena, guk segituan lortuko dugu. Euskal Herrian Euskaraz" zioen gutxigorabera. Eta egia da. Oso euskara gutxi entzuten da.

"Kilometroak", edo euskararen aldeko beste edozein jai zein ekitalditan gazteleraz barra-barra. Ohituta gaude. Euskaldunen artean ere erdara nagusi. Euskara jakin arren, hobeto moldatzen dira asko gazteleraz.

Baina gure herriko beste ohitura txar bat ere aipatu nahi dut. Bergaran euskara gutxi erabiltzen den arren, erabiltzen denean esaten direnak ere ez dira aldrebeskeria makalak. "In leikedostazu fabore bat", "Zuk hori ezin leike dozu ein", "Nik balindot" eta antzeko esaldi mingarriak entzuten dira.

Aiton amona zaharrek gaurko gazteen euskara ez ulertzea normala da horrela hitzegiten ezkerero. *Goiaz* esan beharrean *goia* esaten da, *bagoiaz* esan beharrean *bagoia*, edo *ikusi zaitut*-en ordez, *ikusi dotzut*.

Zer egin euskaraz hitzegiterakoan erabiltzen diren formula madarikatu hauek baztertze? Herri elebakarra lortzea litzateke irtenbide onena, erdal hizkuntzaren ondorio bait dira neurri handi batean. Baina hori lortzeko kilometro asko egin beharko dira euskararen alde.

Bitartean, saia gaitzen euskara ondo erabiltzen, eta gora San Fermin, Osasuna eta San Pedro- San Martzialetan, kilometroak ardo edan, ez kilometro bat ardo eta nerekin, euskaraz. Ondo Pasau.

Ion Altuna



LARRAÑAGA

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Artakale 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA



20. Sukaldeko muebleak erosi ditugu orain dela gutxi. Hasieran projektua eta aurrekontua (oso gutxi detailatua) egin ziguten baina esan ziguten projektua ez zutela ematen. Hori bidezkoa da?

duzu enpresa horri inolako lanik ez ematea. Ziurrenik ez da fidatzekoa izango eta. Edozein modutan ere, kontutan izan aurrekontua egitearren kobratzeko eskubidea dutela. Enteratu zaitetz aurrez ondo puntu horretaz.

(Informazioa: KIUB)

Legez ez dago ezer araututa gai honi buruz. Hala ere, esan behar da, normalean projektua obra egiten bada ematen dela. Gainontzean, proiektugilea da proiektuaren jabe bakarra, ez beste inor. Eska iezaiezu aurrekontua behar bestean zehazteko eta ezetza ematen badizute hobe

21. Txakurkume bat daukagu etxean eta aurrean harrapatzen duen gutzia haginka apurtu beharrean ibiltzen da. Zer egin dezakegu?

Lehenengo eta behin esan

behar da guztiz normala dela haginak ateratzen ari zaizkirenean zapata, arropa, muelle etab.ei haginka ibiltzea. Beraz, garai horretan kontu izan beharko duzu eta arropa, zapata, liburu, eta antzekoak bera iristen ez den toki batean uztea komeni zaizu. Horien ordez emaezu hezur bat. Txahalen hezur handiak, barruan una dutenak izaten dira onak. Harekin emango du denbora.

Egurrezko mublei eta, haginkarik ez egiteko, iltzelar (clavo) olioiz igurztea duzu onena.

22. Noiztik dago Bergaran EPAko eskola? Zenbat ikasle izan ditu eta zenbatek atera dute graduatua?

1986-87 ikasturtea izan zen HHI-EPAko eskolak funtzionatu zuen lehenengoa. Horrez gero, urtez-urte izan dituen ikasle kopuruak honako hauek izan dira: 86-87 ikasturtean 95 ikasle, 87-88an 110, 88-89an 124, 89-90ean 100 eta 90-91n 180. Horietatik lehenengo urtean 43k atera zuten eskola gra-

duatua, bigarrenean 58k, hirugarrenean 32k, laugarrenean 23k eta aurten 55ek. Norbaitek pentsa lezake portzioan oso jende gutxik lortzen duela graduatua, baina esan beharra dago izena ematen duten guztiek ez dutela graduatua ateratzeko egiten, HHI eko eskolaren eskaintza oso zabala bait da. Joan den ikasturtean, esaterako, oinarritzko heziketan alfabetatze eta irakurketa klaseak eskaini dira eta baita Lehen Ikasketen Agiria (Certificado de Estudios Primarios) eta pregraduatu lortzekoak ere.

Horretaz aparte, eskaini izan dira beste hainbat ikastaro eta tailer, ortografia, hizkuntza, ikasketa teknikoak, enkuadernazioa, argazkilaritza, zeramika, etab. buruzkoak.

Eta azkenik ezin utzi aipatu gabe, eskolak antolatuta dituen hainbat iharduera soziokultural: emakumearen arazoari buruzkoak, astialdiko heziketa, eztabaida-taldeak, etab.

(Informazioa: Helduen Heziketa Iraunkorreko Eskola.)

EXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

□ **Maria Pilar Lonarbide jubilat**

Berrogeitabost urte klaseak ematen daramatzan irakasle hau jubilatua egin zaigu gaur, 65 urte betetzen dituen egun berean. Hainbat bergarar belaunaldi pasa izan dira Maria Pilarren klasetik denbora horretan, eta Burgos eta Arabako Alcedo herrian ere klaseak eman ditu. Horrez gain, San Martin Eskola Publikoan euskararen irakaskuntzaren aitzindaritzat jo dezakegu, bera izan baitzen Ikusi-makusi ikasmetodoaren asmatzailea. Bere lankideek atzo eskaini zioten ondo merezitako bazkari-omenaldia eta guk ere lerro haun bidez bere bizi guztia irakaskuntzan eman duen Pilar Lonarbide omendu nahi dugu. Zorionak!



□ **Apostua irabazi**

Bere buruari egindako apostu bat zela medio, Iosu Leturia joan zen larunbat eta igandearen artean Donostiatik Bergaraino oinez etorri zen kostaldeko bidetik. Larunbatean Zumaiaraino iritsi eta, bertan lo egin ondoren, igandean berriz jarri zen martxan. Jakin ere badakigu bat baino gehiago izan zirela, hondartzatik bueltan, harrিতuta geratu zirenak 35 gradutako tenperaturapean Iosu *pasiuan* ikustean.


□ **Just married**

Eduarne Iñarra arrasatearra eta Juanjo Domenech bergararra ekainaren 15ean Musakolako Elizan ezkondu ziren. Ohizkoa ez izan arren, oraingoan Edurneri tokatu zitzaion Juanjori eliz-atarian itxoitea. Ezkontza ondoren, 150 gonbidatu inguruk Oñatiko Etxe-Aundi jate-txean izan zuten bazkaria; juerga ere gau osoan zehar luzatu zen eta ezkonberriak Tenerife eta Lanzarote aldera joan zitzaizkigun



Zertan
dihardute
ba?


NARTXI AZKARGORTA



TAUN-TAUN

Txontxongilo Taldeko 27 urteko bergarar honek interpretazio saria jaso zuen Madriden izandako Estatuko Lehen Txontxongilo Jaialdian, *Bi kate* obran egindako lan bikainagatik.

JOSUREN MURGIZU



Hamaika urtez espetxeratua egon ondoren, 35 urteko bergarar hau ekaina hasieratik erregimen irekiko egoeran aurkitzen da. Honek Langraitzeko espetxetik egunero irtetzeko posibilitatea ematen dio, bertan lo egiten duelarik.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

Beheko

Taberna

MENESTRA ETA KONEJOA
DIRA GURE BEREZITASUNAK
ANGIOZAR Tfna: 76 55 74

Hau dok barreguria

Ganorabakua ei zan mortala Altos Hornos-ko langile haura. Baria baiño odol gutxiago ei zeukan. Pentsaizu berakin zebillen batek zera esateko:

- Horrek tximinixa puntatik botata be eleukek abixadaik hartuko.

- Hi be heure denboran makiña bat parranda eindakua haiz!

- Jeseus, jeseus, zenbat gripe pasau ete juau zutik ajia zalakuan.

- Hi tontoarro, kerten, kalamidade bat haiz.

- Ze uste dok pa, heu bakarrik, ala?

Mediku plaentziar ha-
rek esaten ebana:

"Medikuena dok ona, medikuena; gaixua hiltzen dala eta medikuak kulpia,

osatzen dala eta San Antonik."

Badoiaz trenian errespetu haundiko gizon bat eta mutiko bat, hau mokuak darixola. Gizonak hau ikusitta esaten dotsa hasarre antzian:



- Hi, mutikua, eztaukak paiñolorik ala?

- Bai, baiña eztotsat iñoi prestatzen..

Badakizue azeitunei zela deitzen dotsen Plaentzian?
"Andaluziako keixak".

J. M. Elexpuru

Aintzinako San Martzial

San Martzialera, goizian letaña egote zan seitterdittan, da bastante jente joate zan. Eta letañaikin igo, han mezia entzun da gero txokolatia. Txokolatia hartu, tajiramira batzuk iñ han eta bera. Atsaldian, bazkaldu orduko, gora. Bazkaixakin be birritan ero hiru bidar joanda gare. Neska koxkorrak giñanian, berriz, erromerixarako opilla ezta, opilla ta tortillia, ezta. Ja, sekula jan ezpagañu bezelaxe, bertara baiño len jan. Gero txakurraundi bat santuandako, santuai botatzeko, beste txakurraundi bat tortiandako.



Sotera Gallastegi, Bergarako kalean 1.888. urteann jalo zen eta 1.985ean hil zen.

Honek paiñolo puntan lotu eta tan ricamente. Gero han, ixipulia ta pasatzeko egote zien hango askan, zapi batzuk esegitta egote zien. Auskalo zeintzuk erabillittakuak zien harek, ezta. Eta danok harekin holakuak eitten. Guk zeteko zien be ez gekixan. Hori eitte zebela bestiak, eta geuk pe bai. Hori prezixua zan eittia.

Eta hori eindra ba, gero plazara. Ta koskor samarrak giñan artian, ba, batian han eta bestian hemen ibilli batzuk eif hantxe, ta ia pentatzen hasi giñanian neskak eta giñan ero, hola zeoze, ba han arasan jarrita iñok ataratzeko zaiñ. Asko aureskuak eta, porsiakaso be presente. Eta halaxe jiratze giñan gu ederki.

Handik bajadia, han illuntzirarte ero ibilitta, mutillakin baldin bazan "de brazete" Santamañaraño, da Santamañan atso pilla haundi bat begira, eta, ja! mutillakin jatxi giñala etxekuei kontauko ete dotsen billurrakin, laga mutillai besotik eta...

"Begarako Euskera" liburutik aterata




Ziripot
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41
BERGARA

**BRIKOLAIA
AUTOMOZIOA**

Turismoak, kamioiak, etab.
Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA

AE




ARRASATE

ELKORO ANTENAK

- TB Satelite bidez
- Telebanaketa

Tfnoa: 79 18 86



Eskalada Txapelketa

Bihar larunbata jokatu da Bergaran Euskadiko II. Kirol Eskalada Txapelketa. Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol eskalada taldeak antolaturik, goizean proba klasifikatorioak kiroldegian izango dira; bertan, 9etatik aurrera, eskaladoreek arratsaldean San Martingo enparantzan jokatuko den finalerako postu baten bila arituko dira. Goizeko saioan gizonezkoek 7b zailtasuneko bide bati egin beharko diote aurre eta emakumezkoek berriz 6c bidean arituko dira. Era berean, 16 urterarteko bergarar gaztetxoek beraiantzat prestatutako txapelketa batean parte hartu ahal izango dute.

Arratsaldean, 6retan, finalera pasako diren zortzi gizon eta hiru emakumezkoek Plazan jarriko den pareta artifizialean 8a eta 7a zailtasuneko bideetan txapelaren bila jardungo dute. Bergarako zenbait eskaladorek ere txapelketa honetan parte hartzeko asmoa dute: Aitor Payros, Jose Antonio eta Miguel Angel Mulasek, besteak beste, Euskadiko eskaladore onenen aurka neurtuko dituzte indarrak. Euskadi osotik hurbilduko zaizkigun eskaladoreen artean aipagarri dira Carlos Garcia naparra, Patxi Arozena donostiarra (iaz Espainiako txapelkun), Iñigo Basterra bilbotarra edota Alberto Aranburu (iaz Euskadiko txapela Bergaran lortu zuen gizona) eta Rikardo Otegi ordiziarren izenak. Emakumezkoen artean bestalde, Bergaran bizi den Beatriz Jimenez arrasatearra dugu faborito nagusia iaz lortu zuen Euskadiko txapela berreskuratzeko. Gizonezkoen irabazleak 40.000 pta.-ko saria jasoko du eta lehen zortziek ere saria izango dute. Emakumezkoetan, txapelkunak 30.000 pta. jasoko du eta finalistentzat ere sariak izango dira.

Bestalde, aste guztian zehar eskaladari buruzko erakusketak, hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak izan dira kultur Etxean eta UNEDen. Gaztetxoek, era berean, eskalada saioak egiteko ere aukera izan dute Jon Lazkano bergararraren laguntzaz.



Martin Egaña garaile

Martin Egaña bergarar gidariak igande goizean Albaceten korritutako AX Txapelketaren proba irabazi zuen.

Martinek denborarik hoberena lortu zuen entrenamenduetan eta igandeko karreran ere errez nagusitu zitzaizen bere arerioei; hasieratik lortu zuen lehen postuari lasterketa osoan zehar eutsi eta ez zuen inolako arazorik izan proba irabazteko. Txapelketaren erdia bete denean Martin sailkapeneko lehen postuan dugu eta Sanmartinetan Bartzelonako zirkuituan izango du hurrengo proba. Marken Txapelketaren barnean berriz, Pablo Irizarrek ere meritu handiko 3. postua lortu zuen Albaceten bere AX Sportarekin.

□ Euskal Bizikleta

Datorren urtean gure herria Euskal Bizikletaren etapa baten amaiera izango da. Aurtengo edizioaren aurkezpenean jakinerazi zenez, 92an honako etapa amaierak izango ditugu: Gatika, Bergara, Donostia, Eibar eta Arrate. Beraz, bigarren etapa Gatika eta Bergara artean korritutako da eta txirriinduzaleek aukera polita izango dute txirriindulariak gertu gertutik ikusteko.

□ Mikelek brontzea

Joan zen larunbatean, Mikel Uribesalgo atleta bergararrak brontzezko domina lortu zuen luzera jauziko proban Tolosan jokotutako Gipuzkoako Atletismo Txapelketetan. Mikelek 6, 85m.-ko jauziaegin zuen, bere marka pertsonala eta, bide batez, Arrasateko errekorra hautsiz. Uztailaren 6an Gasteizko Mendizorroza Kiroldegian izango diren Euskadiko Txapelketetan parte hartuko du.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

IGARZA

Merzeria Lenzeria

Udarako bainujantziak

Irala5 Tfnoa 76 24 88



Orain dela aste pare bat atal honetan bergarar talde bat atera genuen, Bergara "terzera"ra lehen aldiz igo izana ospatzen. Kantua ere asmatu zuten haiek. Hona hemen letra, Migel Arizmendi Azpiazuk asmatua:

<p>Admiremos a los jugadores del Deportivo Bergara Campeon ya que el año que viene jugaremos con los clubs de 3º División.</p>	<p>Adios equipos de la regional Bienvenidos los de la nacional Un aupa a nuestros bravos mahoneros muchachos deportistas sin rival.</p>
---	--

Oraingo honetan , garaipen hura lortu zuen taldea dakargu.

Erretratua Atotxan aterata dago, 1958ko urtarrilaren 19an. Bertan agertzen den ekipoa honako hau da:
Zutik: Oregi (Trabuko), Egaña (Pedro), Andres Alzelai (Entrenatzailea), Linazisoro, Linzoain, Sanz, Rementeria eta Gallego.

Makurtuta: Agirre, Alberto, Misol, Egaña ("Pitia") eta Xapa.

Hamar urtetik gora egin omen zituen ekiptoak hirugarren mailan eta azkenean tokatzen ez zen jokadore bat alineazioan sartzeagatik jaitsi omen zen. Gertatu ei zen Bergarak Mondragoen kontra jokatu behar zuen partidua atzeratu egin behar izan zela ikaragarritzko edurrak bota zituelako eta handik bi hilabetera jokatu zela. Baina partidu batetik bestera Bergarak Uritta fitxatu omen zuen eta entrenadoreak konturatu barik (lehen fitxa zeukatenak bakarrik jokatu behar zuten eta) jokuan jarri. Hori dela eta partidua galdutzat eman eta beste lau puntu kendu zioten Bergarari. Halaxe jaitsi zen.

Estepan Plazaola

Argazkia: Jose Mari Arizmendi

**Aldoka
Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI

BERGARA

GIARTZU

(M.Isabel)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupeazioa

Errekupegailu elektronikoa

Korrente Kapazitatiboak

Estetika Tratamenduak

Larruzal garbiketak

Kosmetika Espezializatua

Boni Laskurain 3, Beheak, Tfnoa: 76 35 71

Oharra:

Orrialde honetan iragarkiak ez dira ordaintzen.



ETXEBIZITZA

• Etxe bat behar dut alokairuan. 30.000 pza. ordainduko nituzke. Tfnoa: 764648.

• Pisu bat alokatzen dut Martokuan. 761460

• Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 20etatik aurrera 764252 Tfno.ra.

• Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.

• Pisua alkitatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.

• Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.

• Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.

• Baserri bat hartuko

genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.

• Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

LANA

• Eraikuntza materialen biltegi baterako errepresentantea behar da. Deitulan orduetan: 760141.

• Neska euskaldun bat behar da etxeko lanetarako. Mesedez fundamentoduna. 760180 Tfno.a.

DENETARIK

• Funda marroidun be-turreko graduatuak galdu dira San Martin Enparan-

tzan. Aurkitu dituenak deitu mesedez: 762485era.

• Mutiko baten txaketa urdin bat, (10 tailakoa), aurkitu genuen, aurreko zapatuan hilak 15, Irizarko Bodegoiaren inguruan. Deitu 761781 tfno.ra.

SALDU-EROSI

• Paseo bizikleta arrosa bat salgai sesto eta guztiz. Deitu: 761241 Tfno.ra. Idurregatik galdetu.

• 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 76-1201.

• Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.

• Amstrad ordenadorea

salgai, kolorezko monitora, 3 pulgadako disketera, 30 jokurekin eta oso merke. Tfnoa: 908171883 (Kotxekoa)

• Renault 6 edo antzerakoa erosiko litzateke. Deitu 762386 tfno.ra gaueko 10.00etatik aurrera.

• Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.

• *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.

• Hiru urte dituen Mobyette bat salgai. Prezio ona. 763276.

• Kanping-karro bat eta osagarriak salgai. Deitu 763647 galdetu Arantzazugatik.

Hildakoak

Pablo Luis Iparragirre Agirre
87 urte, ekainak 25ean

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak


Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70



VARILUX M.D. lente
optikoetan azken
belaunaldiko emaitza da;
zailtasunik gabe distantzi
guztietara ondo ikusteko
aukera ematen du, lente
hauek ez dute inongo
marrarik begi bistara.

 **MULTIOPTICAS**

J. Larrañaga C.B.
OPTIKA



KIDE FUNDATZAILEA



76 15 75
BERGARA



79 29 95
ARRASATE



88 99 88
ORDIZIA